

BERRIGARA

18. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, apirilak 21

Javier Retegi
eta Eneko Oregi,
bi bergarar
Jaurlaritzan

Arrantzan herriko errekatxoetan

OPEL VECTRA BERRIA

merit

GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL 



TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)




Helena Rubinstein-ek Goi Mailako Kosmetika ezagutzera gonbidatzen zaitu. Etor zaitez!!

Gure makilaia eta estilistak zure azalari komeni zaion tratamendu eta makilaia buruz aholkua emango dizu. Zure galdera eta beharrei soluziobide onenak emango dizkie.

Inoiz baino ederrago sentituko zara!

Zatoz **EGILUZ lurrindegira**. Irizar pasealekua, 3.

Deitu 76 24 82 telefonora, eguna eta ordua zehazteko.



ARGALDU!!!

ORDENADORE BIDEZKO SISTEMA BERRIA

JAKIN NAHI BADUZU:

- ZER grasa portzentaia duzun
- ZER muskulu-masa portzentaia duzun
- ZER likido (erretentzioa) portzentaia duzun



NOVA LINEk hori guztia jakiteko

aukera eskaintzen dizu

Eska ezazu txanda HURBIL dietetikan!!

HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tinoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Iñaki Eraña

Komikiak:

Bitlor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.800 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

KRISTINA ATXA

Xamatz dantzataldeko partaidea

- Noiz egingo duzue Xamatzen X. urteurrena ospatzeko jaialdia?

- Oraindik zehazteke dago. Frontoian egin behar diren berrikuntza lanen zai gaude eta baliteke jaialdia urrian izatea. Bertan Xamatzetik pasa diren dantzari guztiek parte hartuko dute. Xamatzen gure aurretik egondakoek eta gaur egun gaudenok probintzi ezberdinetako dantzak eskeiniko ditugu eta tartean txalaparta, dultzaineroak, bertsolariak etab. izango dira.

- Beste ekitaldirik antolatuko duzue?

- Bai. Baliteke maiatzaren 27an Ukraniko talde bat Bergaran izatea. Dantza eta jantzi aldetik oso talde ikusgarria da eta hurrengo egunean, maia-



tzaren 28an, Bergaran izango den Haurren Euskal Jaian ere parte hartuko dute ziurrenik. Bestalde, maiatzaren 14an Nagusien Euskal Jaia izango da, datorren astean Larrain dantza ikastaroa hasiko da (hainbat tabernatan eman daiteke izena) eta ekainean trajeen erakusketa zabalduko da Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

"Frontoia berrizten denean egingo da 10. urteurrena ospatzeko jaialdia"

I T U R R I O N E T I K

Aurtengo Pentekoste jaietan zortzi txozna jarriko dira Bideberrin

Udalak ondoko taldeei emango die Pentekoste Jaietan txozna jartzeko baimena: Miguel Altuna Institutua (txurreria ondoan), Aranzabal Lagunartea (jarraian), Bergara Kirol Elkarte eta Jarrai (Infernukua tabernatik gertuen egongo dena). Bestaldean honako hauek kokatuko dira (behetik hasita): Aranzadi Ikastola, Amnistiaren Aldeko Komitea, Ipintza Institutua eta Aritz Saidi Olaortua antzuolar gaztearen aldeko batzordea (goian, Miguel Altuna Institutukoaren parera). Zozketan Txapa Irratia kanpo geratu da eta beraz 8 txozna jarriko dira ekainaren lehen astebukaeran ospatuko diren herriko jaietan.

**E S A N
D U T E**

"Azkenaldi honetan badirudi jende askok pazientzia galdu duela herri honetan. Presoen senideek, adibidez, lehengo egunean esaten zuten hiru urte egon direla ateak jotzen eta presoen egoera hobetu beharrean kasurik ez dietela egin eta duintasunagatik pazientzia agortu zaiela,

Euskaltzaindiak lehengoan esaten zuen pazientzia galdu duela, arrantzaleek ere esan dute, Herri Batasunak ere bai.

Eta Jarraik aspaldian maila horretan ikusi zuen instituzioek gaur ixten duten aukera eta bide horretatik aparte herrietan eta gazteen artean bilatu behar dugula babesa, horretara sustraitu behar dugula erakunde eta hortik etorriko zaizkigula bai Jarrairi eta bai gazteriari bide berriak eta aukera berriak. Zentzu horretan ez dago erradikalizaziorik, koherentzia baizik".

MIKEL ZUBIMENDI
Jarraiko bozeramale eta HBko parlamentarioa
EGUNKARIA



PULP FICTION
Ostirala: 22.30.

Larunbata: 16.45, 19.30, 22.30.

Igandea: 16.45, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



MEMORIAS DE UN HOMBRE INVISIBLE
Igandea: 11.30.



VIDA DE ESTE CHICO
Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Quentin Tarantino** zuzendariak (*Reservoir dogs*) eta **John Travoltak** izugarritzko arrakasta lortu dute filme honekin. Tarantinok lotura duten hiru istorio paralelo aurkezten dizkigu eta umore beltza eta biolentzia nagusituko dira. Aktore ezagun mordo bat (**Uma Thurman, Harvey Keitel, Bruce Willis** edota **Samuel L. Jackson**) eta musika benetan aipagarria. Gidoi orijinal onenaren *oscarra* eskuratu zuen filma.

▼▼ Gizon ikustezinaren bertsio berri bat **John Carpenter** zuzendaria eta **Chevy Chase** eta **Daryl Hannah** aktoreen eskutik. Honetan, *Nick Hallwayri* (**Chevy Chase**) uste baino buruhauste gehiago ekarriko dizkio ikustezina izateko duen gaitasun horrek. Txikitan zeuzkan fantasiak ametsgaizto bihurtuko dira orain...

▼▼ **Tobias Wolff**en autobiografian oinarriturik eta 1950eko Estatu Batuetan kokatuta, *Caroline Wolff* (**Ellen Barkin**) eta *Toby* (**Leonardo DiCaprio**) bere semearen istorioa kontatzen zaigu. Senarrarengandik separatu ondoren, *Carolinek Dwight Hansen* (**Robert De Niro**) ezagutuko du baina hiruren arteko erlazioak ez dira errazak izango...

Deiak

▼ **Manu Muniategi**ren margoak Donostiako DV Galerian (San Martin, 5) maiatzaren 6ra arte.

▼ **Dani Laskurainen** margoak Bilboko Area 2 galerian (Alameda Mazarredo, 35).

▼ **1949**ko kintoen anaiarteko eguna apirilaren 29an. 12etan meza Santa Marinaran eta 14.30etan bazkaria Lasa jatetxean.

▼ **1936**an jaiotako bergararren anaiarteko eguna maiatzaren 21ean. Meza Santa Marinaran eta bazkaria Antxonin. Izen ematea (2.000 pezeta) Antxonin eta Eusebio II tabernetan.

▼ **Kapirixok** Oñati ezagutzeko ibilaldia iragarri du iganderako. 9.30etan San Pedroko zelaitik.

Ogia

▼ **Igandea 23:** Mizpildi.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 21:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Larunbata 22:** Estella/Amezua.
- ▼ **Igandea 23:** Estella/Ruiz.
- ▼ **Astelehena 24:** Mozos/Morales.
- ▼ **Asteartea 25:** Camacho/Azkoa..
- ▼ **Asteazkena 26:** Puy/Español.
- ▼ **Osteguna 27:** Guallar/Corcuera.

MEMESA

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA



SFK

Txotxongiloen III. Mostra

Datorren ostegunean Taun-Taunek antolatutako Txotxongiloen Nazioarteko III. Mostrari emango zaio hasiera.

Astebukaera osoan zehar txotxongiloak izango ditugu protagonistak eta Mexico, Italia, Frantzia, Madril, Andaluzia, Kantabria, Katalunia edota Euskal Herriko hainbat talderen emanaldiak izango dira ikusgai. Ostegunean, hilak 27, Juan Martin Elexpuruk pregoia irakurriko du 6etan Kultur Etxean eta bertan "35 años de títeres cubanos" izeneko erakusketa inauguratuko da. Maiatzaren 4ra arte, Kubako iraultzatik hona izan diren taldeen lana ezagutzeko aukera izango da. Bergarako Kataplof malabarista taldeak ere parte hartuko du inaugurazioan eta Bilboko Goloka taldeak "Harriaren garaia" izenburuko kale ikuskizuna eskeiniko du arratsaldeko 5.30etan eta 7.30etan. Taun-Taunek, berriz, "Makinatu" bere azken lana antzeztuko du 8etan Zabalotegiko aretoan.

Ostiralean, goizeko 10etan eta 12etan, ikasleei zuzenduta, Jordi Beltránen "Poemes audiovisuales" lana izango da Mariaren Lagundian. Ordu

Datorren ostegunean hasita, estatuko eta nazioarteko txotxongiloak Bergaran ikusgai



Taun-Taunek bere azken lana, Makinatu, erakutsiko du.

batean Plazan Madrileko Marionetas del Matadero taldearen "Concertino" iragarri da (5etan berriz ere eskeiniko da Plazan), 8etan Granadako Etcétera taldearen "Trans" ikuskizuna Zabalotegin, 11etan El Tenderete bilbotarren "Soberanos problemas"

Pol-Polen eta gaueko 12.30etan Marionetas del mataderok "Tauromaquia" eskeiniko du Kartzela Zaharrean. Jarraian Fran Iturbe eta Javi Botanzen kontzertua izango da.

Larunbatean, hilak 29, ordu batean Daniel Raffel

frantziar taldearen "Cinemarionnette" ikuskizuna Plazan (Frontoian 5etan errepikatuko da), 8etan Zabalotegin Claudio Cinnelli italiarraren "One more kiss", 11etan Santanderreko La maleta de Marianoren "El gato con botas" eta gaueko 12.30etan Saltimbanqui mexikarraren "Cuentos de tradición indígena".


Bukatzeko, igandean "Poemes audiovisuales" 8etan Zabalotegin, 9etan Plazan Golokaren "Suaren garaia", 23.30etan Kartzela Zaharrean Frantziako Bululú Téathreren "Teatre de Partout", 12.30etan Taun-Taunen Austin FX-4 bideoaren aurkezpena egingo da eta azkenik, Xabier Labaienen kontzertua izango da mostrari amaiera emateko.

Sarrerei dagokienez, Zabalotegiko ikuskizunetarako sarrerak 700 eta 500 pezetan (ikasle eta langabetuentzat) jarriko dira salgai eta Kartzelakoak 500 eta 300 pezetan. Era berean bonoak 2.500 eta 1.300 pezetan jarriko dira salgai.

Gartzela Zaharra, Pol-Pol, Zabalotegiko aretoa eta kalea antzoki bihurtuko dira

BOLSOS BERGARA, S.L.

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa



Santalaitz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

Bergara aurrera!!

Bergarako lehen futbol taldea ikus-tera sarri joaten naiz eta pixkat dezepionatuta nago hirugarren mailarako igoera lortu ez duelako.

Nere ustez Bergarak hirugarren mailan egoteko aukerak baditu, jokalarien maila eta herrian dagoen afizioa kontutan izanik. Gainera, horrek ikusmin handia piztuko luke herrian Arrasate edota Oñatiko taldeen kontra derbyak jokatzera.

Ez dakit zergatik baina denboraldi hasierako asmoak ez dira bete eta pena bat da. Beste urtebetez preferente mailan jokatu beharko du Bergarak eta horrek ez du ez zalegoa animatzen ezta jokalarien progresioa suposatzen.

Zenbaitetan taldeak izan dezakeen benetako maila erakutsi du aurtengo etxeko partiduetan baina kanpoan gauzak asko aldatzen direla irakurri dut egunkarietan. Teorian behintzat partidua errazak zirenak galdu dira eta orain ihardunaldi gutxi falta direla motibazio falta ikusten da guztien aldetik. Nekeza izango da liga amaiera bitartean jendea Agorrosinera erakartzea.

Uste dut aukera aproposa dela gazteei kategoria ezagutzeko aukera emateko. Horrek jende berria eraman dezake futbol zelaira eta gazteek kon-

fiantza hartu dezakete hurrengo denboraldiari begira.

Hor dago nere proposamena. Besterik ez. Bakarrik zuzendaritza eta jokalaria animatu nahi nituzke ea hurrengo denboraldian hirugarren mailarako igoera lortzen duten desiatuz. Aupa Bergara!

ASIER RODRIGUEZ

Euskara Bartzelonan

Bartzelonan bizi naizen bergarar bat naiz eta urtean hiruzpalau aldiz bakarrik joaten naiz herrira. Hemen lanean dihardut eta primeran bizi naizen arren, askotan sentitzen dut herrimina. Jaioterriko notiziak ezagutzea gustatzen zait eta lagunekin eta familiarren batekin telefonoz izaten ditudan solasalditxoekin bidez edo gutunetan bidez enteratzen naiz.

Hala ere, orain dela bi hilabete BERRIGARA etxean jasotzeko aukera nuela kontatu zidan lagun batek eta nere izena eman nuen errebista hartzeko. Harrezkero bizpahiru ale jaso ditut eta beneten oso gustora irakurtzen dut. Herriko gertaerak oso ondo kontatzen ditu, pertsonaiei egiten zaizkien entrebistak ere oso dibertigarriak dira eta nohizean behin lagunen bat agertzen da bertan.

Oso idea pilita iruditzen zait herriko nortziak jasotzen dituen errebista bat argitaratzearena. Euskaraz da eta nik oso ondo menderatzen ez dudan arren, nahiko erraz irakurtzen ditut artikulak. Beraz, segi aurrera proiektu horrekin eta nik, astero-astero (korreoak hutsik egiten ez badu behintzat) jasoko dut BERRIGARA Bartzelonan.

L. URRUTIA

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

◆ **Jaiak Elorregin**

Igandean San Prudentzio jaiak hasiko dira Elorregin. 6etan auzoko gizezkoek emakumeentzat gertatuko txokolatea banatuko da eta ondoren umeentzat jolasak izango dira. Ostegunean 6etan txopo jasotzea eta kanpaiak jotzea eta ostiralean 7etan Meza Santua.

◆ **Udalekuak**

Kikaundik OHOKo hurrei zuzendutako udalekuak antolatu ditu uztailaren 3tik 21era bitartean. Izen-ematea (3.000 pta.) Kikaundi Ludotekan.

JAIOTAKOAK

Odei Pérez Soriano

Apirilak 6

Idoia Regorigo Alberdi

Apirilak 11

HILDAKOAK

Tomas Sebal Agirre

Martxoak 29, 85 urte

Marcelino Akizu Ormazabal

Apirilak 9, 77 urte

Elvira Iruegi Goikoetxea

Apirilak 10, 86 urte

Lidia Poza Poza

Apirilak 10, 63 urte

Maria Errasti Igarza

Apirilak 11, 86 urte

Domingo Ramírez García de Andoin

Apirilak 13, 87 urte

Josu Oregi Aranburu

Apirilak 14, 75 urte

Teodoro Leturiondo Zierraga

Apirilak 14

Arau subsidiarioen alegazioak ikusgai daude Udaletxean

Arauei behin behineko onarpena eman aurretik

Behin behineko onarpena eman aurretik ikusgai izango dira Udaletxeko bulego teknikoan Arau Subsidiarioen gainean aurkeztutako 14 alegazioak. Arauen hasierako onarpenean, ibaia- ren ubidearen eraginez ordenazioz kanpo gelditzen ziren edifizioak ordenazio barruan gelditzen dira orain.

Bestalde, Urteaga eta San Miguel kaleetako zenbaki pareetan etxebizitzaren planta bat gutxitzea proposatzen da eta Urteagako ezpareetan egin behar diren etxebizitzaren bolumen baldintzak ere aldatzen dira. Era berean, Irizar Ibilbideko 5. zenbakiko etxebizitzak eta Irala aretoko determinazioak aldatu egiten dira eta Katabia kalean ere 2-B edifizioa dagoenetan lagatzeko erabakia hartu da. Beste horrenbeste egingo da kaleko gainontzeko edifizioekin.

Mayc inguruan babes ofizialeko etxebizitzak

Alegazioekin jarraituz, Miguel Aldánez e Hijos



Arau Subsidiariotean jasotzen denaren arabera erreka- ren gainean dauden Zubietako lehen bi etxeak bakarrik botako dira.

eta Rodamientos Eder S.A. lantegiak lekuz aldatzeko 8 urteko epea zehazten da Arau Subsidiarioen behin betiko onarpena egiten den momentutik.

San Juan auzoan Kanpos eta Etxetxo baserriak ordenazioz kanpo uzteko deklarazioa baliorik gabe uzten da etorkizunean Plan Partzial bat egin bitartean. Mayc inguruan egingo diren etxebizitza guztiak babes ofizialekoak izango direla zehazten da, eraikita dauden etxebizitzak eta Plan Partzia-


lak kontsolidatuko dituenak salbu.

Surrako sektore erresidentzialetan, Mayc eta Txara parean, hasierako onarpenean jasotako terreneuak urbanizaezinak deklaritzen dira.

Diskoteka San Lorentzon

Beste aldaketa aipagarri batzuk ere badira eta horien artean San Lorentzon diskoteka-kafetegi bat eta gasolindegia- ren ondoan jatetxe bat jartzeko aukera jasotzen da.

KOXKA



- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

ETXAGI

J A T E T X E A

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

◆ EAJren oharra

Bergarako EAJ-PNVk maiatzaren 28an izango diren Udal eta Foru hauteskundeetan botoa korreoz eman nahi dutenentzat bulego bat jarri du martxan. bertan izan daitezkeen zalantzak argitu edota beharrezko argibideak emango dira. Bulegoa eguerdiko 12etatik ordubatera eta arratsaldeko 7etatik 9etara izango da zabalik.

◆ Udalaren eskertza


Erramu Zapatuko Feriako batzorde antolatzaileak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei aparkalekuak libre uzteko arreta hartzeagatik.

◆ Menopausia tailerra

Osakidetzak 45 eta 54 urte bitarteko andrei zuzendutako menopausiari buruzko tailerra antolatu du maiatzaren 3tik aurrerako asteazkenetan, goizez 10etatik 12etara edo arratsaldez 4retatik 6etara. Izen-ematea Anbulategian egin daiteke.

◆ Kirol Zerbitzuaren ikastaroak

Udaleko Kirol Zerbitzuak ondoko ikastaro hauek iragarri ditu maiatzerako: saltsa ikastaroa 16 urtetik gorakoentzat (maiatzaren 2tik aurrera), dantza aerobikoa 12 urtetik 15 urtera bitartekoentzat (maiatzko astelehen, asteazken eta ostiraletan), golf ikastaroa Lagrainen maiatzaren 6tik aurrera eta boleiboleko monitore titulua lortzeko ikastaroa Eibarren (maiatzaren 6an hasita). Interesatuek Udaleko Kirol Zerbitzuan jaso dezakete ikastaro ezberdinen inguruko argibide gehiago (77 91 67 telefonoa).



Miguel Altunako Institutu berria maiatzaren lehenengotan inauguratuko da.


Hurrengo ikasturterako hezkuntza eskeintza zehaztuta

Miguel Altuna eta Ipintza institutuen eskeintza bateratua

Zehaztu da dagoeneko Bergarako hezkuntza eskeintza 1995/96 ikasturterako. Nobedade gisa, datorren ikasturtean FPko lehen urtea desagertuko da eta Altuna zein Ipintza Institutuek LOGSEko Batxilergoa eskeiniko dute. Lehen bi urteak orokorrak izango dira eta ondoren III. Prestakuntza zikloa edota modulo ezberdinak egin haal izango dituzte ikasleek (REM eta Lanbide Hezkuntza gaur ulertzen diren bezala desagertu egingo dira). Lanbide Hezkuntzan elektriko edota mekaniko espezialidadeak emateko aukera izango da.

Bestalde, Haurtxoa haurtzaindegiak haur hezkuntza emango du (0-2 urte), Arans-guik haur hezkuntza (3-5 urte), lehen hezkuntza (6-11) eta OHO 7. eta 8. mailak (12-13 urte). San Martin ikastetxeak eskeintza bera

egin du eta Aranzadi Ikastolak, horrez gain, UBI emango du. Angiozarko Herri Eskolan haur hezkuntza eta lehen hezkuntza emango dira, Mariaren Lagundian haur hezkuntza, lehen hezkuntza, OHO 7. eta 8. mailak, REM eta Lanbide Hezkuntzako FP-2 (gutxitu sikikoen espezialitatea, 16-19 urte). Miguel Altuna Institutuan REM, Lanbide Hezkuntza, III. Prestakuntza Zikloa eta lehen aipatutako LOGSE batxilergoa eta Ipintzan, berriz, UBI eta LOGSE batxilergoa. Lanbide Eskola Mankomunitateko Lantegi Eskolaren ardurapean izango da eta Alfabetatze Ziurtagiri Graduatua HHI-EParen esku. UNEDek Unibertsital Hezkuntza ematen jarraituko du eta Aspacen eta Musika Eskolako eskeintza berezia izango da.



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnok: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

MUGICA

GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3
☎ 76 10 34



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97
- SUINAGA Esther (Etxeko animaliak. Etxez -etxeko zerbitzua). ☎ 76 17 84

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 06 43
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereok) - Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

PEDAGOGOA:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eduarne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76.14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Osasuna

Masaiak

- Zein motatako gaitzak dira ohizkoenak masaien bidez tratatzeko?

- Jende gehiena bizkarreko minarekin etortzen da eta baita kirola egiten dutenak ere, tiroiak edota kontraktarekin, kirolak ekartzen dituen arazoe-kin batipat. Dena den, kasu bakoitza aztertu behar da: adina, zein lan egiten den, pasatu diren gaitzak etab. Fitxa bat egin ondoren, horren arabera tratamendua zehazten da. Kontutan izan ez dela berdina gazte edota pertsona edadetu bat tratatzea. Azken hauek bigunagoak dituzte beren giharrak eta hezurak. Bestalde, erlajatzeko bada, edozeinek har dezake masaje bat.

- Masaien bidez lesioak senda daitezke?

- Masajeak ezin ditu gaitz guztiak sendatu, kalte batzuk esate baterako dejenaratiboak baitira. Adibidez emakumeetan ematen den lepoko miña baretu daiteke baina zeharo konpontzea ezinezkoa da. Tratamenduarekin muskulatura tonifikatu egiten da eta ariketa

batzuekin min hori larritzea ebitatzen da. Hala ere, jende gaztearekin askoz ere lehenago igartzen da errekupeazioa. Eta edozein tratamendu egiteko lehenbizi diagnostiko on bat egitea beharrezkoa da, bestela hasierako tratamenduan ez da aurrerapenik ikusten. Diagnostiko eta tratamendu on batekin gauza



IRUNE AZPEITIA
(Masaialaria)

onak lortu daitezke.

- Zein da lesioak izateko sasoirik txarrrena?

- Udazkenean eta neguan izaten dira lesio gehienak (beharbada hartzarekin giharrak gogor-

tzen zaizkigu). Udan askoz gutxiago izaten da. Aproposena zera da: masajea minik ez dagoenean hartzea, gorputz osoa erlajatzeko baita. Horrela, kirol munduan masajeen bidez lesio arriskua gutxitu egiten da.

- Zeintzuk dira giharrik delikatuenak?

- Norberak zein lan egiten duen zerikusit handia izaten du baina piramidala (ipur gainekoa) batez ere. Onena kirol pixkat egiten edota pasiatzea izaten da. Kirolen artean igeriketa da konpletuenetarikoa baina igeri- an egitea ere jakin egin behar da. Adibidez, burua kanpoan duzula igeri- an egitea ez da ona lepoko miñerako... Gaisotasunei dagokienez, normalean masajeak ez du eraginik izaten, anjinetan izan ezik.

- Zein eratako masaiak daude?

- Mordo bat daude: shi-atsu, kaliforniarra, *transverso profundo* deiturikoa eta abar luze bat. Shia-atsua esate baterako nik ez dut ondo ezagutzen, kaliforniarra, berriz, oso suabea da, erlajatzeko oso egokia eta *transverso* tiroi eta *tendinitis* serako aproposa.

Aldi berean bakoitzak bere maniak dauzka era bateko zein besteko produktuak erabiltzeko orduan.

"Edozein tratamendu egiteko lehenbizi diagnostiko on bat egitea beharrezkoa da"



Kirol munduan masajeen bidez lesio arriskua gutxitu egiten da.

KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko- en espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

LARRAÑAGA

eta ZUBIA


Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



Bi bergarar Eusko Jaurlaritzan



EAJ, PSE-EE eta EAK osatzen duten Gobernuako Industria sailburua Jabier Retegi bergararra da. Hezkuntza sailburuorde, berriz, Eneko Oregi, hau ere bergararra. Jaioterrira hitzaldi bat ematera etorri zirela eta, unetxo bat hartu eta elkarrizketa egin genien.

Jabier Retegi eta Eneko Oregi

Legealdi honetan bi bergarar daude Jaurlaritzan: Eneko Oregi Hezkuntza sailburuordea eta Jabier Retegi Industria sailburua. Orain Gasteizen eta Arrasaten bizi dira.

Sailburu eta sailburuorde izatera nola iritsi zarete?
 - ENEKO OREGI: orain arte modu profesionalean politikan ez dut sekula jardun, baina gaztetatik ibili naiz militantzian eta konpromezu

politikoan. Lanbidez itzultzailea naiz eta gero berriz nire lanera itzuliko naiz.

- JABIER RETEGI: Industrian sailburuorde nintzela nire beharra zegoela esan zidaten eta sailburu nago, baina oso

egoera zirkunstantziala da.

- Zer du politikak?

- E. O.: Nire belaunaldiko askorentzat politika konpromezua da. Nik oraindik agintean ez dut esperientzia haundiegirik, baina aginteak politikak baino gehiago engantxatzen omen du, gauzak egiteko edo egiten laguntzeko bidea ematen duelako. Alde horretatik badiu erakargarritasuna, hala ere, ez dut uste agintean, kargu batean edo politikan egoteak erotikarik duenik. Nire ustez, politikak lan asko eta frustrazio ugari ematen du eta azkenean norberak ikusi behar du egin ahal duenak konpensatzen duen ala ez.

- J. R.: Politikan gauza bat da kanpotik ikusten dena eta bestea barrutik dagoena. Barrutik lan, buruhauste eta eginkizun haundiak dauden arren, gauzak egiteak eta aurrera ateratzeak, hau da, herriarengatik lan egiteak konpensatzen du; nahiz eta jakin egindakoa inork ez duela inoiz eskertuko, merezi du.

- Jaurlaritzan zaude tenetik zuen bizimodu asko aldatu da?

- E. O.: Ez asko. Herri-gintzan dabilen edonork denbora asko ematen du lanean, bilera eta elkarrizketetan; kargoetan bazauzde hori gehiago nabaritzen da.

- J. R.: Arrasaten bizi

BERGARA
Karrozeriak
 Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

"Bergara gainbehera eta noraezean ikusten dut, bokazio gabeko herri bat bezala. Urteetako, mendeetako polo izaera beste herri batzuen mesedetan galdu du"

ENEKO OREGI

naiz, betiko lagunak eta ohitura berberak ditut. Aldatu dena da, lehen ez bezala, orain erabaki garrantzitsuak orduoro hartu behar ditudala eta erantzunkizun guztia nire del.

- **Aisialdian zer**

egiten duzue?

- E. O.: Egotea gustatzen zait, irakurtzea, musika entzutea, alabari kantuak erakustea, ipuak kontatzea... baina ez dut patxadaz ezer egiteko astirik.

- J. R.: Astean ez dut

ezertarako astirik izaten eta asteburu askotan ere lan mordoa eramaten dut etxera, baina mendia eta paseatzea asko gustatzen zaizkit.

- **Zenbat egunkari irakurtzen duzue?**

- E. O.: Bat. Begia ge-

hiago joaten zaizu zure laneko gauzetara.

- J. R.: Bi, eta egunkari guztietako albisterik garrantzitsuenen laburpenak ere pasatzen dizkidate.

- **Eneko, Gasteiztik nola ikusten duzu Bergara?**

- Gainbehera eta noraezean. Bergara bokazio gabeko herri bat bezala ikusten dut; kemen edo adore gutxiegi ikusten dut. Badago jendea, noski, baina gustatuko litzaidakeena baino gutxiago. Beste herri batzuk bezala

Gertutik

► **ENEKO OREGI**

41 urte, alaba bat du eta Gasteizen bizi da. Ekonomia enpresan lizentziaduna. Gasteizen EAko zinegotzi izan zen eta orain Hezkuntzako sailburuorde da.


► Otto Pette da mesanotxe gainean duen liburua. Txuleta asko gustatzen zaio, edari bat aukeratzekoan kafea aitatzen du eta Gasteizen gabardina barik ezin dela bizi dio. Astelehena du astegun buruzuriko egunik gustokoena.

► Lanean batuan hitzegiten du, etxean gipuzkeraz eta alabak Bergarako euskara ikasiko ez duelako pena du.

► Bere ustez, herri komunikabideek badute etorkizuna, baina anekdotan erortzeko arriskua ikusten die.

► Leizarragaren *lesu Crhist gure launaren testamentu berria*-gatik ez luke 33 miloi ordainduko, Euskal Herrian diru hori inbertitzeko premia handiagoak badaude.

► Itzultzailearen lana ez da behar beste baloratzen. Gero eta itzulpen lan hobeak egiten diren arren, kalitate ona denborarekin eta eskarmentuarekin lortuko da.



"Nire belaunaldiko askorentzat politika konpromezua da"

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

iRUDI
**Erlojudenda
Bitxitegia**


Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua



"Orain erabaki garrantzitsuak orduoro hartu behar ditut"

Gertutik

JABIER RETEGI

58 urte, 3 seme eta alaba baten aita. Arrasaten bizi da. Bergarako Miguel Altuna Institutuan (Elementala) ikasi ostean Peritajea egin zuen, baita Ingeniaritza ere. SPRIren zuzendari izan da.

Hezkuntza eta Industria sailburuorde izan ostean, legegintzaldi honetan Industria, Nekazaritza eta Arrantzu sailburu da.

► Arrasaten gustora bizi da. Babak eta Errioxako ardoa mahai ganean direla, gazteekin oso gustora afalduko luke zer pentsatzen duten jakiteko. Txandala da gustokoen duen erroa eta ostirala heltzeko irrikitzen egoten da.

► Bere ustez, pobre eta aberatsen arteko desberdintasuna gero eta txikiagoa izango da; iritsiko da denok antzera biziko garen garaia baina egitura berri hori lortu bitartean krisian biziko gara.

► Kooperatibek, pertsonengan oinarrituta daudenez, gero eta etorkizun handiagoa dute: enpresan, eguneroko lanean zein erabakietan, langile guztiek hartu behar dute parte eta horretan kooperatibak oso aurreratuta daude.

ikustea gustatuko litzaidake, gauzak egiteko bide jakin batean martxan jarrita: ekonomian, kulturean, hirigintzan... baina biztanleak galtzen ari da, indar ekonomikoa ere bai... Azken batean, urte-etako, mendeetako polo izaera beste herri batzuen mesedetan galdu egin du eta horren ordez ez dut ikusten Bergarak zer egin nahi duen.

- Jabier, enpresa eta lan arloan zein da Bergarari buruz duzun iritzia?

- Bergara, bailara guz-

tian bezala lan aldetik motel dabil, horretan ez da desberdina. Enpresa batzuk ondo dabilta, beste batzuk ez eta ezin da esan arlo bat beste bat baino hobeto dabilenik, ez dago horrela hitzegiterik; gaur egun, ondo edo

gaizki gestionatutako enpresak daude.

- **Nolako etorkizuna ikusten duzu?**

- Etorkizuna ez da beltza. Konpetitzeko enpresak berpiztu eta egiturak aldatu egin behar dira, guk geuk ere

aldatu egin behar dugu; aldaketa horrek ez du esan nahi behin aldatu behar denik, behin eta berriz aldatzea eskatzen du. Serio hartu behar da, eta hori ulertu eta geureganatzen badugu, badago etorkizuna.

"Bergara, lanari dagokionez, bailarako beste herriak bezala dabil. Ezin da esan arlo bat beste bat baino hobeto dabilenik, ondo edo gaizki gestionatutako enpresak daude"

JABIER RETEGI

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

ITXASMENDI



ERREKADISTA

Barrenkale, 36
BERGARA

☎ 76 50 64 / 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

Josu Oregi itzultzaile eta euskaltzalea hil zen 75 urte zituela Ostiral Santu egunean

- ☐ *Minbizia zuen eta azkenaldian hainbat ebakuntza egin zioten*
- ☐ *Asteartean egin ziren bere aldeko hileta elizkizunak*



Josu Oregik euskararen alde lan izugarria egin zuen.

Asteartean Josu Oregi Aranburu bergararraren aldeko hileta elizkizunak izan ziren Santa Marinaran.

Parrokia leporaino bete zen eta herritar askoren artean, Eusko Jaur-

laritza eta beste erakunde batzutako ordezkariak izan ziren hileta elizkizunetan. Besteak-beste, Joseba Leizaola Eusko Legebiltzarreko presidentea, Jabier Retegi Industria sailburua, Amatiño

ETBko zuzendari ohia, Iñaxio Oliveri Hezkuntza sailburua, Jose Julian Irizar Gipuzkoako Eako presidentea, Imanol Murrúa Gipuzkoako Diputatu

Nagusia izandakoa eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan ziren.

Josu Oregi aurreko ostiralean hil zen minbiziak jota 75 urte zituela. 1919-

► *Gizon jakintsu eta abertzalea*

Zeruko Argia astekarian lan egiten nuenean ezagutu nuen Josu Oregi. Hiztegiari buruzko lan bat ekarri zidan argitaratzeko. Orduan ezagutu nuen aurpegiz, nahiz eta lehendik ere entzuterik izan. Gizon jakintsuaren eta abertzalearen sona baitzuen. Hala ere, harriturik utzi ninduen. Kaleko gizon batek hainbeste euskara jakitea harritzekoa ere bazen, izan ere.

Handik urte batzuetara elkarrekin lan egiteko eta elkar hobeto ezagutzeko aukera izan genuen Deia egunkarian. Gairik bitxiarik eta zailenak euskaratzeko gai zen. Horrek harritzen ninduen gehien. Gero, Eusko Jaurlaritzara joan zen itzulpen lanen arduradun. Are eta gai arrotzagoak euskaratu beharrean gertatu

Kaleko gizon batek hainbeste euskara jakitea harritzekoa ere bazen

zen hor, jakina. Baina kafea eta zigarroa lagun, han ariko zen etsi gabe. Baita gau osoan jardun behar bazuen ere. Geroztik oso bakanka egiten genuen topo, beti adeitsu eta lagun. (...)

Errege Mintegia izeneko eskola famatuak izan zuen eraginik, noski, Josu Oregiren zientziazaletasunean. Izango zuen, jakina Elhuyar anaien entzuterik. Eta ongi entzuteko aukera izan zuen Telesforo Aranzadi antropologoarekiko miresmena ez zen nolana hikoia izango Oregi gaztearen bihotzean. Giro horrek guztiak lerratu zuen, ezpairik gabe, jakintzara. Urte zailetan egin behar izan zuten aberriaren eta euskararen alde lan. Hobeak ezagutzeko zoria ere izan du, jakina, erein zuten haziari esker. Jaso beza gure esker ona, beraz.

Mikel Atxaga *Kazetaria DEIA*

an Bergaran jaioa, Oregik euskararen aldeko lan benetan aipagarria egin zuen. Bilbon eta Liejan (Belgika) Injenieritza ikasketak burutu ondoren, gerra ostean, 1940an, bueltatu zen. Bi urtez Urretxun bizi izan zen eta 1942an Bergarara itzuli zen behin betikoz. Aitararen "Fabrica de Tejidos Oregi y Cia." lantegian egin zuen lan orain 20 bat urte lantegia itxi zen arte.

Tartean matematika eta elektrizitate klaseak eman zituen Lanbide Hezkuntza Institutuan eta euskarazkoak Bergarako Batxilergo Institutuan. Era berean, Francoren garaian, alfabetatze ikastaroetako bultzatzaileetarikoa bat izan zen.

Euskara, zientzia eta historia

Irakurle amorratua, euskara, zientzia edota historiako gaiak interesatzen zitzaizkion batipat eta, era berean, hainbat artikulu eman zituen argitara Euskal Herriko zenbait aldizkaritan (Jakin, Fontes Linguae Vasconum, Elhuyar...) euskararen inguruan. Askotan "Osirantzu" edota "Zubiarte" ezizenekin sinatzen zituen bere lanak.

Legebiltzarreko itzulpen arduraduna

Deia egunkarian ere


lan egin zuen, 1977an egunkaria jaio zenetik euskarazko itzultzaile izanik 1980ra arte. Ondoren, 80an Legebiltzarreko Itzulpen arduradun izendatu zuten eta orain bizpahiru urte jubilatzen.

Urte askotan EAJko partaide izan eta gero, EA sortu zenetik bertako kidea zen.

Josu Oregi Mirentxu Goñi tolosarrarekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan dituzte, Eneko (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea), Uxue, Xabier, Mikel eta Arantzazu. Lerro hauetatik gure doluminak adierazi nahi dizkiogu Josu Oregiren familia osoari. Goian bego.

Berrigarako kolaboratzaile

Josu Oregi BERRIGARAko ohizko kolaboratzaileetako bat genuen. 1991ko abenduan aldizkaria jaio zenetik beti ere kolaboratzeko prest azaldu zen eta askotan bisitari izaten genuen erredakzioan, solasaldirako eta aldizkaria hobetzeko gomendioak emateko gogoz eta anekdota bitxiak ere tartekatuz. Zigarroa ezpainetan zuela benetan eskertzekoak ziren berarekin izandako eztabaidak eta saiatu gara bai hortik probetxua ateratzen. Orain, kalean libururen bat irakurtzen izaten zen pasialari nekaezin hori botako dugu faltan...




Irakurle amorratua, lanean zein astialdian beti liburu artean.

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



ZABALETA ERROTULOAK

**Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...**

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

Bisita gidatuak antolatu direla eta, herria ondo ezagutzen duzula uste duzu?



Joaquina Rodríguez

40 urte, etxeoandrea

Nik uste dut baietz. Dauden toki eta edifizio interesgarriak ezagutzen ditut baina historia beste gauza bat da...



German Viana

25 urte, langilea

Printzipioz baietz esango nuke baina ziurrenik ez ditut leku asko ezagutzen. Horregatik ondo dago bisita horiek herritarrentzat ere antolatzea.



Ines Iturricastillo

29 urte, langilea

Ez. Interesa badaukat baina edifizioak ezagutu arren, historia, zeintzuk egin dituzten jauregiak eta horrelako datuak ez dakizkit. Sakontzea falta zait.



Juan Jose González

43 urte, langilea

Oso gutxi. Gauza asko daude ez ditudala ikusi ere egin. San Juan aldean adibidez oso gutxi ibili naiz.



Anita González

46 urte, langilea

Bergaran 14 urte nituenetik bizi naiz baina ez dut behar beste ondo ezagutzen. Interesa badaukat baina beti lanpetuta nago eta ez dut ondo ezagutzeko astirik izan.



Jesus Catalán

65 urte, jubilatua

Urte askotan bizi naiz Bergaran, 39 urte guztira baina ez dut gehiegi ezagutzen. Lana egiteaz bakarrik arduratu gara eta...

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



Ezetz tinkoena

Indarkeriak helburu politiko zilegienak pozointzen ditu. Erabiltzen ditugun medioen arabera, gure jomuga onenak gaiztotu ditzakegu. Aberria eraiki bai, baina nola, hamaika hildako zutabe direlarik? Ez jauna!. Abertzaletasuna faxista ere izan daiteke, adibide ugari dauzkagu. Ez diezaigun beldurrik izan hizkuntzari. Bakoitzari berea.

Herri honetako gehiengo batek bortizkeriaren aurka erakusten duen jarrera bost axola zaio abangoardia militarri. Intsumisioa ETArekiko. Ez ordea HBrengan, indar politikoa den ezkerer.

Herriaren etorkizuna eztabaida eta elkarrizketaren bidez eraiki behar dugu, ez tirokatzen ados ez dagoenari. Baina hau ulertezina egiten zaio eskubide kolektiboak beste edozein gainetik -eskubide indibidualak alegia- jartzen duenari. Hala pentsatzen ez badugu, oker gabiltza, engainatu gaituzte, errepikatzen dute aspertu arte.

Egia, benetako egia politikoa, abangoardian datza. Artaldearen artzai militar eta zintzoak. Errealitatearen gainetik etorkizuna eta bide zuzena bideratzeko "aukeratuak". Mesianismo hutsa. Uste dute etorkizuneko itxaropen guztiak pistola baten lehiatilik ondo baino hobeto igarzten direla.

Ba ez!! Eta gure desadostasuna agertzeko gai izango garen bitartean itxaropena ez dut galduko. Beraz, nire ezetz tinkoena.

Iñigo URRUTIA



Orrialdetik kanpo

GAL kasua, Aznarren aurkako atentatua, Galindo koronelaren gorabeherak, Aberri Eguneako adierazpenak, Aberri Egunaren ondoren esandakoak, Alli eta UPNko beste kide batzuen ihesa, ETari egindako elkarrizketa, datorren maiztean egingo diren hauteskunderen aurrekanpaina, eta abar eta abar. Politika munduak eta baita honi lotuta dauden beste mundu batzuek ere, albiste franko eman dituzte azken egunetan. Gehienetan bezala, gai hauei buruzko iritzirik emateak batzuen usteak finkatzeko eta beste lagun askorenak ez aldatzeko balioko luke, baina ez, berriz, bakoitzaren aurriritziak baztertzeko. Beraz, egun hauetan gai nagusia denetik alde egin, eta egunkarietan askoz leku gutxiago lortzen duen joera batez berba egin nahiko nuke.

Pasatu berri den Aste Santu honetan, inguruko lagun asko Euskal Herritik kanpo joan direla ikusi dut. Estatuko, Europako edo munduko leku askotan zer ikusia badagoela zalantzan ipini barik, askotan gure herrikoari kasu gehiagi egiten ez diogula iruditzen zait. Lerro hauekin ez dut inolako kritikarik egin nahi (autokritika ere izango litzateke), baina bada piska bat tristea Medina de Pomar, Laredo edo beste edozein herri non kokatuak dauden, zein ohitura daukaten edo zeintzuk diren martxa guneak oso ondo jakin bitartean, gure herriak non dauden ere ez jakitea. Euskal Herriaren badago zer ikusi, eta ez da oso argia izan behar oso toki ederrak gure ondoan dauzkagula jabetzeko. Behar bada, distantziarekin gauzak hobeto ikusten ditugu. Ah! eta politikako orrialdeetatik kanpo ere Euskal Herria ager daitekeela erakutsi behar dugu.

Mikel LIZARRALDE



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea.
☎ 76 50 39



Barrenkale, 31

Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A**

Tfnoa: 76 20 02


BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA


Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK



Aste Santuan hainbat puntutatik etorritako 80 bat turista izan ditugu bisitari Bergaran.

Turismo Santua Bergaran

80 bat lagun hurbildu dira Aste Santuan Udaletxean martxan jarritako **Turismo Bulegora**. Bertan Elorrioko Sonia Suberbiola eta Kristina Romero bergararra izan dira lanean, bisitariari beharrezko informazioa emateko prest. Beraiek aipatu digutenez, turisten artean katalanak izan dira nagusi baina Asturias, Kantabria edota Nafarroatik ere jende dexente etorri da. Era berean, zenbait atzerritar (15 bat) ere etorri da gure herria ezagutzera, Frantzia, Ingalterra eta Alemaniatik batipat. Turismo bulegoa astelehenean itxiko da eta ordurarte bisita gidatuak egiteko aukera izango dute nahi duten guztiak: igandean ordu batetik ordu bietara eta astelehenean 5etatik 6etara. Bertan herriko ondarea eta gainontzeko leku interesgarriak ezagutzeko aukera izango da.

Txorimalo galantak

Jardunek **Erramu Zapatuan** antolatutako **txorimalo lehiaketak** ikusmin handia piztu zuen feriara hurbildutako jendetzaren artean.

Guztira, 22 txorimalo aurkeztu ziren lehiaketara, 12 txorimalo 14 urtetik beherako kategorian eta beste 10 14 urtetik 60ra bitartekoen artean (60 urtetik gorako kategorian ez zen inor aurkeztu). A kategorian Arans-gui taldea izan zen irabazlea, bigarren Aintzane Olabariaren taldea sailkatu zen, 3. Leire Asiainena eta 4. postuan Asier Egañaren taldea. Partaide guztiak egun bateko bidaia jaso dute sari modura. B kategorian Ana Txurrukaren taldea nagusitu zen (15.000 pta.) eta bigarren Agurtzane Elorzaren taldea (10.000 pta.). Azkenik, esaldi onenaren saria (10.000 pta.) Karlos Aldairen taldeak eraman zuen esaldi honengatik: "Txoriak erdara balira, izan gaitezen txorimalo".



Erramu Zapatuko lehiaketara 22 txorimalo aurkeztu ziren.

LONBIDE OINETAKOAK




Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**Kirola egiteko
behar den guztia**

BOLINTXO

Ibargarai, 10
☎ 76 38 32



Naturaren bitxikeriak

Aste honetan arrantzaren inguruan eskeinitako artikuluaren osagarria izan daiteke **Jose Tejadaren** goiko argazkia. Inguruko amorrainak, itxuraz behintzat, egoera larrienei aurre egiteko gai dira eta horren lekuko hor duzue arandela batez inguratuta azaldu zen

amorrain hori. Hazi ahala arandelak zeharo zauritu zuen amorraina baina harrigarria bada ere kritik harrapatu zuten arrantzaleek. Ez dira ez pieza makalak...

Urrezko eztaiak

Elizalde baserriko **Eleuterio Olabarria** eta **Maria Eguren**ek beren ezkontzaren 50. urteurrena bete zuten igandean, apirilak 16. Orain **50 urte** ezkondu ziren Uberan Maria eta Eleuterio eta domekan elkarrekin igarotako lehen 50 urteen ospakizun eguna izan zuten familiartekoekin batera. Arantzazun meza entzun ondoren, bazkaria egin zuten Soraluze hotelean, bertan, besteak beste, Eleuterio eta Mariaren 6 seme-alabak eta 14 iloba bildu zirelarik. Zorionak biei eta eutsi osasunari!!



Maria Eguren eta Eleuterio Olabarria, 50 urte elkarrekin.

Zertan dihardute ba?



Antxon Maiztegi 13 urteko igerilari bergararra Gipuzkoako Federazioak Benidormen antolatutako konzentrazioan parte hartzen ari da ostegunetik igandera bitartean. Antxonek 5 urte daramatza igerian eta gaur egun Leire Zeziagaren agindutara entrenatzen du. Antxon 7. maila ikasten ari da Aranzadi Ikastolan. Bere hitzetan *"lehen aldia da honelako kontzentrazioa baterako deitzen didatena eta ilusio baundia egin dit. Zein estilotan aritzen naiz ondoen? Guztiak egin behar izaten ditugu baina emaitza hoberenak estilo libreakin lortu ditut orain arte"*. Berarekin batera 1981ean eta 82an jaiotako Gipuzkoako beste 24 igerilari izango dira Benidormen.

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

Juan Ignacio MONTIANO Doktorea

Pediatra

San Martin Osasundegia

Ramon Maria Lili, 2 ☎ 76 59 39

Mari Ines Lazkano

Mari Ines Lazkano zapatuero Zurraderoko merkadilloan egoten da josteko makinak, hariak, repuestoak eta berak egindako bordatuak saltzen. Gaur egun bordatuen aldizkaririk ez da kaleratzen baina pezeta bateko aspaldiko aldizkarietako ereduak fotokopiatuta moldatzen da.

- Bergarako zenbat egoten zarete merkadilloan?

- Neu naiz bakarra.

- Gustura egoten zara?

- Jende asko ezagutzen da.

- Eta txarrena zer da?

- Hotza, erreka kontrari gaude.

- Beste leku batera joango zinateke?

- Bai, guk plazara joan nahi dugu.

- Denda edukitzea gustatuko litzaizuke?

- Izugarri. Erregalo denda bat.

- Josteko makinak nork erosten ditu?

- Ezkonduak eta amek alabei erregalatzeko...

- Eta bordaturik saltzen duzu?

- Bai, asko. Batez ere izarak, manteleriak eta toailak.



"Jende asko ezagutzen dut merkadilloan, baina erreka kontrari gaude eta hotza egiten du, leku txarra da. Bordatuak egiteko ohitura ez da galduko dirua dagoen bitartean. Gehien saltzen direnak izarak, toailak eta manteleriak dira"

- Oraindik bordatzen erakusten duzu?

- Ez, lokala, makinak... behar dira.

- Bordatuak egitea galdu egingo da?

- Dirua dagoen bitartean ez.

- Bordatuak kapritxoak dira?

- Bai eta garestia gainera.

- Etxean zeuk bordatutako zerbait baduzu?

- Bai, jakina. Kurtinak...

- Jantziak bordatzen dituzu?

- Bai, eskatzen didatena.

- Zergatik egiten duzu lan hau?

- Polita da eta soldata atera behar dut.

- Nola bordatzen duzu makinaz ala eskuz?

- Makinaz. Eskuz bordatutakoak ez luke preziorik izango.

- Bordatzerakoan kantatzen duzu?

- Ez, irratia entzuten dut.

- Zer da dotoretasuna?

- Norberaren itxurarekin bat datorrena jaztea.

- Kolore bat?

- Berdea.

- Guardasola ala modan dauden kapela horietako bat?

- Ez naiz guardasolzalea, baina kapelak oso inkomodoa izan behar du.

- Orratzak baino luzeagoa izan behar du jostoratzak?

- Ez naiz batere esaerazalea.

SANTOS

IRRATI-TB

**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea

Elena



Tfnoa: 77 14 24

ETXEBIZITZA

Duplex bat salgai Masterrera 6an. Berritzeko aukera. ☎ 13 35 27.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Baserrria salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

Pisua salgai Zumaian. ☎ 76 44 53/74 31 81.

Pisu bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauzez).

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea saltzen edo alokatzen da. ☎ 76 21 09.

DENETARIK

Mobylette motorra (49 cc.) salgai. ☎ 76 59 15.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun **akordeoia** erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Volkswagen "kakalardoa" salgai. IAT pasatu berria. ☎ (94) 673 01 22.

Futboleko bota berriak salgai. 38 zenbakikoak. 5.000 pta. ☎ 76 48 68.

Donostian **pisu** bat osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 25 61 (Maite).

Mobiyette Cady bat salgai. ☎ 76 54 73.

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Volkswagen Polo GTI (SS-AJ) kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 38 72 (Asier).

Karta astralak egin eta tarotekoak botatzen dira. ☎ 76 07 87 (Jabier).

Hilero **250.000 pta.** irabazi nahi izanez gero bidali sobre bat. 20.580 PK. Osintxu 16. 2.B.

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingeleza, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Ingeles batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldatuko nituzke. ☎ 76 24 54.

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

Haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).


Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

FERNANDEZ**Oihal puskak**
OihalakSan Antonio, 3
☎ 76 22 93Ibargarai, 2
☎ 76 53 22**ARREGUI, E.M.****ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



"Serafin Zubirirekin zuzenean joko dut eta, bestalde, Hertzainak taldeko Gariri laguntzen ari naiz"

"Azkenaldian argitaratu diren diskoen artean, Javier Alvarezena eta Gozategi ditut gustokoen"

FRAN ITURBE, MUSIKARIA, LA DUDA TALDEKOA

"Gozategi anaien diskoan erritmo eta estilo ezberdinak nahastu dira"

30 urte ditu eta gazte-gaztetatik musikari lotuta. Institutuko garrantzian Seska taldea sortu zuen beste lagun batzuekin batera. Harrezkero, hainbat taldetan ibili da eta beste musikari batzuen kolaboratzaile ere izan da. Aste honetan bertan Serafin Zubiri kantariarekin izan da Bartzelona aldean.

- Lanpetu samar ikusten zaitugu. Proiektu asko eskuartean?

- Bai, egia esan bai. Atzo bertan iritsi nintzen Bartzelonatik. Serafin Zubirik diskoa grabatu berri du eta zuzeneko emanaldietan kitarrak jo eta abestu egingo dut.

- Gozategi anaien diskoan ere ekoizle lanak egin berri dituzu...

- Bai, orain dela gutxi argitaratu da eta oso gustora nago egindako lanarekin. Grabaketan sortu diren arazoak konpondu eta musika kontuetan aportatu nezakeena aportatzen saiatu naiz.

- Rock eta Pop mundutik datorren musikaria izanik, nola sartu zara trikiti talde baten diskoa produzitzera?

- Beno, Elkar diskae-



La Dudako aspaldiko taldekideekin.

txeak argitaratu du eta ezagutzen ninduten Hor Konpon taldearekin egindako lanagatik.

- Nola geratu da diskoa?

- Niri asko gustatzen zait, zeren trikiti talde bat izan arren, soinu diferente asko agertzen baitira, erromeria soinuez gain, kunbiak, runbak edota tex-mex tankerakoak. Hala ere, berbena soinua ebitatzen saiatu gara. Erritmo eta estilo ezberdinak nahastu dira, mestizajea da nagusi, baina diskoa koherentea da.

"Gozategi anaien diskoan erromeria soinuez gain, kunbiak, runbak edota tex-mex tankerakoak ere agertzen dira. Mestizajea da nagusi, baina soinu berbeneroa ebitatu dugu"

- Eta noizko La Dudaren diskoa?

- Horretan dihardugu. Gasteizko Digital Biko diskaetxearekin harremanetan gaude eta diskoa argitaratzeko asmoa agertu dute, baina Angel Celada bateriajolearena eta Doctor Deseoren hurrengo ere plazaratzeko asmotan dabilta. Ez dakit noiz grabatuko dugun. Une honetan hiru musikari bizkaitarrekin nabil. Abesti guztietako musika nik konposatu dut eta letrak, berriz, Pedro Urkijorenak dira.

- Beste proiekturik?

- Azkenaldian irudiei musika jartzeko sintoniak egin izan ditut enkarguz. Bestalde, Gari, Hertzainak taldeko abeslaria izan zenari laguntzen ari naiz, diskoa argitaratzeko asmotan dabil eta. Horrez gain, Josi Y Los Javiseko, Javi Botanz eta biok zuzeneko emanaldi akustiko batzuk egingo ditugu.

- Ze musika entzuten duzu?

- Pop talde britainiarak ditut atsegin. Elvis Costello beti gustatu izan zait, Javier Alvarez madrildarraren diskoa ere asko gustatzen zait. Ah, eta onenak Gozategi anaiak!!



komentarioa

Aste Santuko oporren ondoren asteburu honetan kopak berriz ekingo dio La Txupeta eta Ufalak eta Nahikari eta Picapiedrak jokatuko duten partiduekin. Gelditzen diren 6 partiduak datorren astean jokatuko dira eta Ogizunek zortea izan du kanporaketatik kanpo gelditu baita. Halere, antolatzaileek kopa txapelketatik kanpo Mongatxurra taldea laga dute federatutako jokalarri batekin jokatzeagatik. Legez neurria ondo dago hartuta, baina jokalarri horrek dagoeneko lagata dauka

federatutako futbola eta badira beste talde batzuk legea apurten dutenak, baina galdu egiten dutelako ez zaie ezer pasatzen. Aurreko emaitzei begiraturaz, Etxenagusiak Bildurbareki sartutako 11 golak dira emaitzarik aipagarrienetakoa eta halaber La Txupeta eta Pikapiedras egiten ari diren kopa txapelketa bikaina azpimarratzeko da. Halere bi taldeek zail izango dute aurrera jarraitzeko, kanporaketa honetan euren baino maila handiagoko taldeen aurka jokatu behar baitute. Baina denok dakigunez kirolean edozer gauza gertatu daiteke eta hasi aurretik inork ez du partidua irabazita.



Madura Industrias Gol taldea, iaz bikain aritu zena, kopatik kanpo.

lazko kopako txapelduna eliminatuta geratu da

Ligago play offak hasteko oraindik aste bat falta denean, kopan dagoeneko 8 talde geratzen dira. Bidean talde faboritoak gelditu dira, Madura, Kabia edo Bildurbarek esate baterako, baina aurrera jarraitzen dutenen artean faborito nagusiak, Errotagaine, tinko jarraitzen du.

Hurrengo jardunaldiko partidieei begiraturaz Angiozar eta Etxenagusiak jokatuko dutena da, aurrez, interesgarriena.



Ufalak iazko txapelduna, Kabia, kopatik eliminatu du.

▼ emaitzak

| | |
|-----------------------------|--------|
| Eri-Nahikari Hooll. | 5 - 7 |
| Hartu Zamak-Pikapiedras . | 6 - 8 |
| Angiozar-La Juve | 4 - 1 |
| Bildurbarek-Etxenagusia .. | 2 - 11 |
| Madura-Errotagain | 0 - 1 |
| Ogizun-Kriterium | 3 - 0 |
| Arloteak-Nekrofilikos | 6 - 2 |
| Canalejas-OH Zerezos | 2 - 3 |
| Los Txupeta-C. Bergara ... | 9 - 2 |
| Mongatxurra-Pagomendi .. | 6 - 1 |
| Ufala-Kabia | 2 - 1 |

▼ partiduak

9.00: OH Zerezos-Ufala

Antolaketa Batzordea

10.00: Los Txupeta-Pikapiedras

Antolaketa Batzordea

LARUNBATEAN BARRUAN

▼ kanporaketak

Etxenagusia-Errotagain

Soropotroak-Arloteak

Nahikari Hooll.-Ogizun

Pagomendi-Angiozar

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

SIRIMIRI

jatetxea

PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

Txirrindulari gazteekin zita Arrasaten

Datorren igandean eguerdiko ordu bietatik aurrera jubencil mailako Donostia 97 lehen klasika jokatu da Arrasaten, estatu mailan aitzindari. Igandeko proba 1.997 urtean Donostian jokatu den munduko txapelketaren antolaketaren barruan dago eta bertan estatu osoko 15 taldek parte hartuko dute. Horiez gain Gipuzkoako jubencil mailako talde guztiak izango dira Arrasateko irteeran. Bergararik Lokatzak bi talde bidaliko ditu, Sumofic eta Señorío de Ojeda. Guztira 12 txirrindulari izango dira bergararrak. *"Igandeko proba oso garrantzitsua da, bertan izango baitira Estatuko jubencil mailako txirrindulari onenak eta esperientzia hartzeko ezin hobea da. Izan ere oraindik ez dugu Euskaditik kanpoko txirrindulariekin korritu eta igandekoa lehen aldia izango da"* adierazi digu J.M. Gabilondok, Lokatza elkarteko arduradunak. Txapelketa eguerdiko 14.00etan hasiko da Arrasaten eta Bergararik 15,30ak aldera pasatuko da Antzuolatik etorrira. Guztira 113 kmko lasterketa bete beharko dute txirrindulari jubenilek.

Kirola eta euskara

Erramu Zapatu egunean sinatutako euskara hitzarmen berrira, Bergara Racing, Zapelaitz Motorzale Elkartea, Badminton Elkartea eta Bergarako Txirrindulari Elkartea gehitu ziren.

Gero eta gehiago dira arrantza praktikatzan duten bergararrak

Bergaran gazte eta helduen artean 152 bergararrek daukate arrantzaren egiteko lizentzia.

Horiek Oilagorra elkartearen bitartez egin dutenak dira, baina elkarte horretako arrantza arduraduna den Jose Tejadak esan digunez, Bergaran, guztira 300 lizentzia inguru izango dira. Lizentziak helduentzat 1.400 pzta balio ditu eta 900 pzta gazteentzat.

Arrantzale gehienak herritik kanpo aritzen diren arren gure herrian ere badago arrantzaren egiteko tokirik. *"Bergarako errekek Nafarroatik ekarritako amorrainekin birpoblatu ditugu eta horrezaz gain, eskailuak ere aurkitzen dira Angiozar, San Juan eta inguruetako errekatxoetan. Karramarroak ere badira baina ez daude egokira onean"* esan digu Tejadak. Amorraina da gehien harrapatzen dena eta bakarrik 20 zmtik gorako arrainak hartu ahal dira.

"Bergarako erreketan ez dago urik"

Arrantzarako baime-nak martxoaren 19tik uztailearen 31ra arte irauten du eta arrantza debekatu dagoenean Tejadak eta bere lagunek Igeltseria zaharrean duten amorraindegia zaintzen dute. *"Urtean 20.000 arraul-*



Herriko errekatxoetan arrantzatzan dutenak ere badira.

tza ekartzen ditugu Nafarroatik eta arrantzaren ezin denean egin askatzen ditugu amorrainak erreketan. Bergaran 7.000 bat askatzen ditugu eta besteak inguruko herrietara bidaltzen ditugu. Baina erreka batzuetan arazoak ditugu: San Juanekoan beti izaten da isurketaren bat eta Abrain erreka, erre-gadioak direla eta, urik gabe geratzen da. Erreketan ez dago urik eta egoera oso txarrean gaude" dio Tejadak.

Amorrainak Deba ibaian

Azken urteetan gauza arraroak ere ikusteko aukera izan du Oilagorrako arrantza arduradunak. *"San Juan edo Angiozarren bartutako amorrain-*

nak obitu egin dira Deba ibaian bizitzera. Ikusi ditut banaka batzuk Deba ibaian eta horrek pentsarazten dit ze kalitate duten harrapatzen ditugun amurrainek".

Arrantzarako zaletasuna bultzatzeko hainbat txapelketa antolatzen dituzte eta horri esker gazteen artean asko ugaltu da arrantzarekiko zaletasuna. *"Gazte asko etorri da guregana lizentzia ateratzera eta gebienek helduek baino errespeto handiagoa dute naturarekiko. Orain harrapatzen ditugun amorrainak aske lagatzen ditugu berriz uretan, baina badira oraindik, helduak batez ere, errespetorik ez dutenak eta neurria (20 zm gutxienez) ematen ez duten arrainak arrantzatzan dituztenak"*.

KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-Agorrosin
Lehen Errejonala.
Igandea, 17.00. Agorrosin.
Bergara-UDA
Lehen mailako infantilak.
Larunbata, 16.30. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-Zarautz
Jubenil mutilak.
Larunbata, 16.15.
Bergara-Urola
Kadete neskek.
Larunbata, 17.30.
Bergara-Urrietako
Jubenil neskek.
Larunbata, 17.00.
Labegaraieta kiroldegian.

► **Gimnasia**

Gipuzkoako banakako txapelketa. Goizez, 9.30etatik aurrera eta arratsaldean 15.30etatik aurrera. Bergararik, Jubeniletan Amaia Arrieta eta Ana Sebal arituko dira. Juniorretan, berriz, Amaia Ortiz de Urbina. Onenak Euskadiko Txapelketarako sailkatuko dira. Labegaraieta Kiroldegian.

► **Pelota**

AFIZIONATUAK
Bergara-Elgoibar
Deba Arroko txapelketa. Infantiletan: Redondo eta Martin. Jubeniletan: Osa eta Gutierrez. Nagusietan: "Muru" eta "Oru". Asteazkena, 21.00. Udal Pelotalekuan.

Idoia Moreno

Aerobica sasoitsu egoteko

Idoia Moreno gaztetatik dabil kirola egiten, hasieran karatea eta, duela 5 urtetik aerobica. Gaur egun aerobic irakasle tituloa du eta Espainiako txapelketetan parte hartu izan du.

- Zela pasatu zinen karatetik aerobicera?

- Karatea egiten nuen gimnasioan aerobic klaseak ematen zituzten eta probatzearen hasi nintzen. Gustatu egin zitzaidan eta hor jarraitzen dut.

- Zer eskaintzen dizu aerobicak?

- Kirola egiteaz gain ondo pasatzen dut. Danetik lantzen da: koordinazioa, elastizitatea, flexibilitatea eta dena musikarekin lagunduta.

- Kirol honek asko eskatzen al du?

- Txapelketetan parte hartu nahi baduzu lan asko egin behar da. Lehiaketan itxurak ere zerikusi handia du, asko begiratzeko baitute.

- Iaz Espainiako txapelketan parte hartu zenuen, baina aurrean ez...

- Aurrean ere parte hartzeko asmoa nuen, baina lagun batzuekin gelditu ondoren, lanean hasi dira eta ezin izan naiz joan. Bakarrik joateko ez neukan gogorik, bidaia ordaindu behar duzu, ez daukazu babeslerik eta txapelketara joaten zara eta egurrekin ematen digute, bartzelonarek, balentziarrekin etab.ek, laguntza gehiago baitute.

- Etorkizunerako ze asmo dituzu?

- Aurtengoan bukatu dira txapelketa guztiak, baina datorren urterako jendea lortzen badut Espainiako txapelketara joateko asmoa dut. Binakakoan gustatuko litzaidake parte hartzea, baina horretarako mutila behar dut eta zoritxarrez ez dago mutil askorik kirol honetan.

- Hasi zinenetik gure herrian aerobicak ze bilakaera izan du?


- Jendea gehiago animatzen da. Donostian duela gutxi izan den Aerobithon txapelketara Bergararik 8 neska joan gara eta kontutan izan behar da hasieran bi bakarrik joan ginela.

- Aerobica egin nahi duenari zer esango zenioke?

- Txandala eta zapatila on batzuk besterik ez direla behar, ezer gehiago. Ez dago adinik aerobica egiteko. Adin bakoitzera-ko egokitu daiteke eta.

- Aerobic egiteko musika "bacalao" erabiltzen da gehien bat. Zergatik?

- Musika "bacalao"arekin erritmoa hobeto mantentzen da. Beste musika mota batzuk ere erabiltzen ditugu, baina beti erritmo askoko musika. Bestela, musika lasaia jartzeko badugu ez du motibatzen, erritmoa behar da aerobica egiteko.



"Kirola egiteaz gain ondo pasatzen dut aerobica egiten"

"Txandala eta zapatila on batzuk nahikoa dira aerobica egiteko"



Peña Aranzabal

Peña Aranzabal azkenaldixan asko entzuten bada be, oin ddala urte batzuk, hamairu gutxi gorabehera, erretratuko taldiak Errealeko trajia jantzi eta aktuaziñotxo bat eskeiñi zeban UNEDeko aretuan.

Talde hau 1969 eta 70ian jaiotako neskak osatzen dabe, hortaz, Gaztelun garaixa zan haura; ez, semia daben Agustiñena.

Honekin batera esan, gure herrixan erreazaliak gehixau badie be, atletikzaliak be asko diela eta hau argi geratzeko ia erretratu bat bialtzen doskuzuen, jentia zuri-gorritz jantzitta daukana.

Ezkerretik eskumara:

Nerea Ezpeleta, Nerea Larrañaga, Leire Lonbide, Esther Laskurain, Irene Arregi, ezezauna, Mireia Gallastegi.

Erretratua: Mireia Gallastegi
Testua: Felipe Iñarra

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

IGARZA

MERZERIA LENZERIA

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA



Zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behe
☎ 76 23 48



San Roke, 26 20690 ELGETA
Tfnoa: 78 91 07 • Faxa: 78 91 06



E&L

LEKBER, S.A.k ELGETAKO LEHEN HOTELA ERAIKI DU

LEKBER, S.A.k adierazi nahi die BERRIGARAKO irakurle guztiei
RÖSEMA S.L.rentzat HOTEL ELGETA eraiki duela.
Elgetako lehen hotela Erramu Zapatuan inauguratu zen.
LEKBER, S.A. Kalitate garantia. Barakaldo kalea, 17 EIBAR.
Tfnoa: 12 06 71 / Faxa: 12 01 51



HOTEL ELGETAn egonaldi atseginak izango dituzu

HOTEL ELGETAn eskaintzen ditugun zerbitzuak:

- Taberna-kafetegia
- Jatetxea
- Bista bikaineko logela erosoak
- Enpresa bileretarako gela aproposak

HOTEL ELGETAko jatetxean:

- Eguneko menua
- Negozio eta enpresa bazkariak
- Familiarteko giroa



BISITA GAITZAZU. ZURE ESANETARA GAUDE!!

HALTZARI

Bolu, 24 behea

BERGARA (Gipuzkoa)

Tfnoa eta Faxa: (943) 76 30 57



Aprobetxa ezazu

FAGOR  en

SUKALDE ALTZARIAK

eskaintza
paregabea

Jantzi ezazu

kolore berriekin

zure

*kalitate*dun

sukaldea



30
%ko deskontuak

• ACQUA • FILA • CELICA •
• KRISTAL • AGATA •

modeloetan